

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2024ko martxoaren 11, astelehena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 20:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:25

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarguren Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Makazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetxea, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi eta Jon Basurko Sarasua.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko Zaharren Babeslekua taberna-jatetxea, garbiketara eta mantentze-lana kontratatzeko espedientea.

- 2.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakiko eraikina okupatzeko kontzesio administratiboa kontratatzeke espedientea.
- 3.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ZAHARREN BABESLEKUA TABERNA-JATETXEA, GARBIKETA ETA MANTENTZE-LANA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Kontratazio Mahaiak 2024ko martxoaren 8an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ADJUDIKATZEA OKSANA SLAVYSCH-i (AIZ: X6666127Z) Orioko Zaharren Babeslekua taberna-jatetxearen zerbitzua eta garbiketa- eta mantentze-zerbitzua, baldintza ekonomiko-administratiboen eta baldintza teknikoen pleguetan xedatutakoaren arabera eta adjudikaziodunak berak aurkeztutako proposamenean azaldutako terminoetan.

Kontratuaren prezioa 350 eurokoa da hilean (%21eko BEZik gabe), eta kontratuaren iraupena 3 urtekoa da. Beste bi urtez luzatzeko aukera dago, bi aldeek hala erabakitzen badute.

2.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 2. ZENBAKIKO ERAIKINA OKUPATZEKO KONTZESIO ADMINISTRATIBOA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA.

Udalbatzarrak Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakiko eraikina okupatzeko kontzesio administratiboa kontratatzeke espedienteari buruz Orioko Udaleko idazkari-kontuhartzaileak emandako txostenaren berri jakiten du. Txostenak honela dio:

LEHENA.- Orioko udalbatzarrak 2023ko urriaren 26an egindako ohiko bilkuran onartu zituen baldintza juridikoen eta ekonomiko-administratiboen pleguak eta baldintza teknikoen pleguak, Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak emateko Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakiko eraikina okupatzeko kontzesio administratiboaren kontratazioa arautuko dutenak.

BIGARRENA.- 2023ko azaroaren 28an, aipatutako kontzesio administratiboa kontratatzeke nahitaezko iragarkia argitaratu zen Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman, eta bertan adierazten zen proposamenak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 9ko 14:30ean amaitzen zela.

HIRUGARRENA.- Proposamenak aurkezteko epean, proposamen hauei eman zitzaien sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean:

- Xanti Irazusta Torno, MOLA MOLA BAR, SL (IFK: B75167544) merkataritza-erakundearen izenean eta ordezkartzan.
- Jurdan Grijalba Ponga, JURDAN GRIJALBA, SL (IFK: B20888798) merkataritza-erakundearen izenean eta ordezkartzan.

LAUGARRENA.- 2024ko urtarrilaren 15ean, Kontratazio Mahaiak, jendaurreko ekitaldian, «BALIO-JUDIZIO BATEN MENDEKO KUANTIFIKAZIOA DUTEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA» izenburuko B gutun-azalak ireki zituen, lizitatzailerik hauei zegozkienak:

- Xanti Irazusta Torno, MOLA MOLA BAR, SL (IFK: B75167544) merkataritza-erakundearen izenean eta ordezkartzan.
- Jurdan Grijalba Ponga, JURDAN GRIJALBA, SL (IFK: B20888798) merkataritza-erakundearen izenean eta ordezkartzan.

BOSGARRENA.- 2024ko otsailaren 16an, Kontratazio Mahaiak, B gutun-azaleko agiriei dagokienez, guztizko puntuazio hau eman zuen:

- MOLA MOLA BAR, SL merkataritza-erakundeari (IFK: B75167544): 36,25 puntu.
- JURDAN GRIJALBA, SL merkataritza-erakundeari (IFK: B20888798): 38,50 puntu.

Jarraian, Kontratazio Mahaiak «PROPOSAMEN EKONOMIKOA» azpigitulua duten C gutun-azalak ireki zituen, lizitatzailerik hauei zegozkienak:

- Xanti Irazusta Torno, MOLA MOLA BAR, SL (IFK: B75167544) merkataritza-erakundearen izenean eta ordezkartzan.
- Jurdan Grijalba Ponga, JURDAN GRIJALBA, SL (IFK: B20888798) merkataritza-erakundearen izenean eta ordezkartzan.

SEIGARRENA.- A gutun-azalean, «KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA» izeneko azpigituluak dituztenetan, jasotako agiriak aztertu dira, lizitatzailerik hauei buruzkoak:

- Xanti Irazusta Torno, MOLA MOLA BAR, SL (IFK: B75167544) merkataritza-erakundearen izenean eta ordezkartzan.
- Jurdan Grijalba Ponga, JURDAN GRIJALBA, SL (IFK: B20888798) merkataritza-erakundearen izenean eta ordezkartzan.

MOLA MOLA BAR, SL (IFK B75167544) merkataritza-erakundeak behar bezala egiaztatu du Orioko Udalarekin kontratatze gaitasuna eta kaudimena.

Aldiz, JURDAN GRIJALBA, SL (IFK: B20888798) merkataritza-erakundeari, baldintza juridikoen eta ekonomiko-administratiboen pleguko 10. artikuluan xedatutakoa betez, errekerimendua egin zitzaion 2024ko otsailaren 20an, bere kaudimen teknikoa edo profesionala modu frogagarrian egiaztatzeko; hau da, azken hiru urteetan gutxienez turista asko biltzen den eremu batean antzeko ostalaritza-zerbitzuen negozio bat (taberna-jatetxea) kudeatzen esperientzia duela frogatzeko, 1.000.000 eurotik gorako zenbateko metatuan. Horretarako, 10 egun balioduneko epea eman zitzaion, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

2024ko otsailaren 26an, Jurdan Grijalba Ponrek JURDAN GRIJALBA, SL (IFK: B20888798) merkataritza-erakundearen izenean eta ordezkartzan aurkeztutako agiriak sartu ziren Orioko Udaleko Erregistro Orokorrean, Udalak egindako errekerimenduan xedatutakoa betez.

ZAZPIGARRENA.- *Jurdan Grijalba Pongak, JURDAN GRIJALBA, SL (IFK: B20888798) merkataritza-erakundearen izenean eta ordezkartzan, aurkeztutako agiriak aztertu dira; aldeztu aurretik, adierazi behar da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean SPKL) 15. artikuluan xedatutakoa betez, zerbitzu-kontzesioko kontratu baten aurrean gaudela. Kontratu horren bidez, Orioko Udalak pertsona natural edo juridiko bati adjudikatu behar dio baimendutako ostalaritza-zerbitzuak kudeatzeko Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakiko eraikina okupatzeko kontzesio administratiboa. Zerbitzu horiek ustiatzeko eskubideak berez dakar kontzesiodunari eragiketa-arriskua transferitzea.*

JURDAN GRIJALBA, SL (IFK: B20888798) merkataritza-erakundearen izenean eta ordezkartzan Jurdan Grijalba Pongak aurkeztutako dokumentazioa arretaz aztertu da; batez ere gaitasun teknikoa edo profesionala ziurtatzeko aurkeztutakoa, eta azterketa horretatik hau egiaztatu da:

- 2021 eta 2022ko ekitaldi ekonomikoei buruzko esperientzia egiaztatzeko, Jurdan Grijalba Ponga (NAN: 44168951G) pertsona naturalari buruzko dokumentazio fiskala aurkeztu da (Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urteko aitortpen-likidazioa), 204.631,21 euroko eta 282.638,31 euroko diru-sarrerekin, hurrenez hurren (BEZa kanpo).*
- 2023ko ekitaldi ekonomikoari dagokion esperientzia egiaztatzeko, JURDAN GRIJALBA, SL (IFK: B20888798) merkataritza-erakundeari buruzko «faktura-aitortpenen laburpena» aurkeztu da, 430.707,92 euroko diru-sarrerak erakusten dituen (BEZa kanpo).*
- Ondorioz, gaitasun tekniko edo profesionala bi pertsona desberdinek egiaztatu dute: pertsona natural batek eta juridiko batek. Hau da, 2021eko eta 2022ko ekitaldi ekonomikoei dagokienez, Jurdan Grijalba Ponga pertsona naturala aipatu da (NAN: 44168951G); eta 2023ko ekitaldi ekonomikoari dagokionez, JURDAN GRIJALBA SL pertsona juridikoa (IFK: B20888798).*

ZORTZIGARRENA.- SKPLren 65.1 artikulua xedatzen duenari jarraiki «Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoez izango dute sektore publikoarekin kontratatze gaitasuna, baina bakar-bakarrik baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatze debekuren bat jaso ez badute eta ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko eta profesionala egiaztatu badute...» Jurdan Grijalba Pongak aurkeztutako proposamena, JURDAN GRIJALBA, SL (IFK: B20888798) merkataritza-erakundearen izenean eta ordezkartzean, pertsona juridiko gisa aurkeztu da, eta, beraz, nahitaez izan behar du pertsona juridiko horrek sektore publikoarekin kontratatze gaitasun-baldintzak egiaztatzen dituenak, eta ezin dira nahastu pertsona natural batek egiaztatutakoekin.

Hain da hori horrela, ezen sektore publikoarekin kontratatze gaitasun baldintzak egiaztatze adierazitako aginduak berariaz bereizten dituela pertsona juridiko eta naturalak «edo» juntagailu baztertzailerak erabiliz, «eta» juntagailu kopulatiboa erabili beharrean. Beraz, pertsona bakar bati dagokio, izan fisiko edo juridiko, bere osotasunean, jarduteko gaitasun osoa eta kaudimen ekonomiko eta finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzea, baita kontratatze debekuren baten eraginpean ez dagoela egiaztatzea ere (SPKLren 71. artikuluan berariaz adierazitakoetatik).

Kasu honetan, gaitasun tekniko edo profesionala bi pertsona desberdinek egiaztatu dute: pertsona natural batek eta pertsona juridiko batek. Hau da, 2021eko eta 2022ko ekitaldi ekonomikoek dagokienez, Jurdan Grijalba Ponga pertsona naturala aipatu da (NAN: 44168951G); eta 2023ko ekitaldi ekonomikoari dagokionez, berriz, JURDAN GRIJALBA SL pertsona juridikoa (IFK: B20888798).

Egia esan, aztergai dugun lizitazioan parte hartze proposamena Jurdan Grijalba Pongak aurkeztu du, JURDAN GRIJALBA, SL (IFK: B20888798) merkataritza-erakundearen izenean eta ordezkartzean. Hortaz, Orioko Udalarekin kontratatze baldintzak nahitaez egiaztatu behar ditu JURDAN GRIJALBA, SL (IFK: B20888798) merkataritza-erakundeak eta ez Jurdan Grijalba Ponga (NAN 44168951G) pertsona naturalak.

Hala ez bada, txosten hau sinatzen duenaren iritziz, lege-iruzurreko egintza baten aurrean egongo ginateke. Beraz, Kode Zibilaren 6. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da; artikulua horrek xedatzen du arau baten testuaren babesean egindako egintzak, ordenamendu juridikoak debekatutako emaitza edo haren aurkakoa dutenak, lege-iruzurrez betearazitatzeko joko direla eta ez dutela eragotziko saihestu nahi duten araua behar bezala aplikatzea.

Gainera, SPKLren 66.1 artikulua honela dio hitzez hitz: «Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik adjudikatuko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jarduera-eremua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz».

Orioko Udalak egiaztatu ahal izan duenez, JURDAN GRIJALBA, SL merkataritza-erakunde (B20888798 IFK) 2005eko urriaren 21ean eratu zen, eta sozietatearen xedea higiezin jabetza, higiezin agentziak eta finen administratzaileak kudeatzea eta administratzea da. Merkataritza-erakunde horrek 2023ko otsailaren

2ra arte ez zuen handitu sozietatearen xedea, beste jarduera hauek sartzeko: jatetxeak, janari-postuak eta edaritegiak.

BEDERATZIGARRENA. - SPKLren 101.1-b) artikuluan xedatutakoa betez, analogia bidez aplikatu beharrekoa kasu honetan, zerbitzu-kontzesioko kontratuen kasuan, kontratuaren balio zenbatetsia zehazteko, kontratazio-organoak negozio-zifraren zenbatekoa hartuko du Balio Erantsiaren gaineko Zerga sartu gabe. Beraz, JURDAN GRIJALBA, SL (B2088798 IFK) merkataritza-erakundeak 430.707,92 euroko zenbateko metatua (BEZik gabe) egiaztatu du 2023ko ekitaldi ekonomikorako.

Hori guztia, alde batera utzi gabe 2021, 2022 eta 2023 ekitaldietako zenbateko metatua (pertsone naturala eta pertsona juridikoak kontatuta) 917.977,44 eurokoa dela, eta, beraz, inola ere ez dela egiaztatu eskatzen den kaudimen tekniko edo profesionala, baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboaren agiriko 10. artikuluan xedatutakoaren arabera; hau da, azken hiru urteetan, turista askoko zona batean, antzeko ostalaritza-zerbitzuen negozio bat (taberna/jatetxea) gutxienez kudeatzen izandako esperientzia, 1.000.000 eurotik beherakoa ez den zenbateko metatuarekin.

Azaldutako guztiagatik, PROPOSAMENA EGITEN DIOT Kontratazio Mahaiari Jurdan Grijalba Ponga JURDAN GRIJALBA SL (IFK: B20888798) merkataritza-erakundearen izenean eta ordezkartzan aurkeztutako eskaintza baztertze, txosten honetan adierazitako arrazoiengatik, eta, ondorioz, Orioko Udalaren Kontratazio Mahaiari PROPOSATZEN DIOT ADJUDIKATZEA Xanti Irazusta Torreri, MOLA MOLA BAR, SL (IFK: B75167544) merkataritza-erakundearen izenean eta ordezkartzan, Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakiko eraikina okupatzeko kontzesio administratiboaren kontratazioa, Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak emateko.

Nolanahi ere, Kontratazio Mahaiaren proposamena Orioko udalbatzarrari aurkeztu beharko zaio, nahitaezko adjudikazio-erabakia har dezan.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiak 2024ko martxoaren 8an egindako bilkuran emandako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**]; gehiengo osoa, beraz]:

1.- BAZTERTZEA Jurdan Grijalba Ponga JURDAN GRIJALBA SL (IFK: B20888798) merkataritza-erakundearen izenean eta ordezkartzan aurkeztutako eskaintza, udalbatzar honen erabakiaren azalpen-zatian adierazitako arrazoiengatik.

2.- ADJUDIKATZEA Xanti Irazusta Tornori, MOLA MOLA BAR, SL (IFK: B75167544) merkataritza-erakundearen izenean eta ordezkartzan, Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakiko eraikina okupatzeko kontzesio administratiboaren kontratazioa, Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak emateko, baldintza ekonomiko-administratiboaren orrietan eta baldintza teknikoaren orrietan xedatutakoaren arabera eta enpresa adjudikaziodunak berak aurkeztutako proposamenaren terminoetan, udalbatzar honen erabakiaren azalpen-zatian adierazitako arrazoiengatik.

3.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta bere talde politikoaren poza agertzen du udalbatzar honetan Zaharren Babeslekuari eta Antilla hondartzako 2. erakinari dagozkion espedienteak adjudikatu direlako. Horrekin batera, bere talde politikoak animoak eman nahi dizkie bi adjudikaziodunei, kontratuko zerbitzuak ahalik eta egokien betetzeko.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza eta balorazio bat egiten du aipatutako bi kontratazioak direla-eta azken asteetan gertatutakoaz. Adierazten du azken asteak bizi-biziak izan direla, zurrumurru asko ibili dela herrian, eta horrek ez diola ezertan laguntzen Udalaren martxa onari. Esaten du, nolahi ere, udalbatzarra gai izan dela gaurko bilkuran bi espediente horiek adjudikatzeko, Kontratazio Mahaiaren proposamenari kasu eginda eta gaiaren inguruko txosten teknikoak ikusita.

Anuska Esnalek azaltzen du baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen pleguetan zehazten dela proposamenak hiru gutun-azal itxitan aurkeztu behar direla: 1 edo A gutun-azala, «kontratatzeko gaitasunari» buruzkoa; 2 edo B gutun-azala «balio-judizio baten arabera kuantifikatu behar den dokumentazioari» buruzkoa; eta 3 edo C gutun-azala «proposamen ekonomikoari eta balio-judiziorik gabeko irizpideei» buruzkoa. Gutun-azal horietan sartu behar da dagokion dokumentazioa, eta gero gaian eskumena duten udal-teknikariek baloratzen dute.

Anuska Esnal alkateak adierazten du, bestalde, Orioko Zaharren Babeslekua jatetxearen eta garbiketa- eta mantentze-zerbitzuen kontratazioa adjudikatu gabe geratu zela hasieran, aurkeztutako bi proposamenek ez zutelako betetzen baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen plegua, kaudimen tekniko eta profesionalari dagokionez.

Anuska Esnalek adierazten du, baita ere, Orioko Antilla hondartzako 2. eraikina okupatzeko kontzesio administratiboa ingurua behar bezala dinamizatzeko kontratatu dela.

Bukatzeko, Anuska Esnal alkateak zortetik onena opa die bi kontratazio publiko horien adjudikaziodunei.

Horrenbestez, alkateak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,